

BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA BAZTAN PILOTALEKUA ERABILTZEKO ESKAERA. 2022-2023KO DENBORALDIA. ENTRENAMENDUAK.

Eskatutako instalazioa: <input type="checkbox"/> Pilotalekua				<input type="checkbox"/> Kiroldegia		
Kirol-kluba:				Helbide soziala:		
FIK:				Erregistro zk.:		
Kirol-klubeko burua:						
Harremanetarako persona:				tel.:	e-maila:	
Kirol-mota	Maila	Egunak*	Ordutegia	E/KKE**	Datak (hasi/akitu)	Monitore nahiz entrenatzaileen hileko diru-saria
* Zehaztu: al.-as.-az.-og.-or. **E: entrenamendua; KKE: klubeko kirol eskola						

ESKAERA:

1. Epea: 2022ko abuztuaren 22tik 29ra.
2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaleko erregistroan.
3. **ERABILTZEKO BALDINTZAK:**
 01. Erabiltzeko egutegia: 2022ko irailaren 15etik 2023ko ekainaren 30era.
 02. Erabiltzeko ordutegia:
 - Al.-as.-az.-og.-or. (Baztan pilotalekua ezin da erabili asteazkenetan 16:15etik 17:15era)
 03. Udalak beretzat gordetzen du kirol-instalazioak erabiltzeko emakida, kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarren arabera.
 04. Udalak bere gain hartzen du ordutegiak eteteko eta/edo egokitzeko eskubidea, sortzen diren beharren eta inguruabarren arabera.
 05. Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
 06. Erabilera-baldintzak ez betetzea, esleitutako ordutegian instalazioa ez erabiltzea, erabilera araudia ez betetzea eta Udalaren aginduak ez betetzea izanen da zehapen-prozedura hasi eta emandako baimena eten ahal izateko arrazoia, bai eta etorkizuneko eskaeretan erabilera-baimenik ez emateko ere.
 07. Baimendutako jarduera gauzatzeko baino ez da erabiliko instalazioa.
 08. Publizitate-kartelak jarriz gero, egunero kendu beharko dira kirol-jarduera akitzerakoan.
 09. Instalazioan baimendutako jarduerarako berezko elementuak bakarrik sartu ahal izanen dira, eta inoiz ez ibilgailurik, orgik, edo instalazioa kaltetu dezakeen bertze edozein elementurik.

10. Kirol-klubak neurri egokiak hartu beharko ditu zoladura babesteko, jasan dezakeen edozein kalteren aurrean.
11. Kirol-kluba izanen da instalazioaren arduraduna baimendutako erabilera-denboran. Erantzukizun horren barnean sartuko da kirol-klubak instalazioan egiten dituen kirol-jarduerei dagokiena, bai eta instalaziora sartzen diren pertsonena ere.
12. Kirol-klubak baimendutako pertsonak baino ezin izanen dira instalaziora sartu, eta kluba izanen da pertsona horien arduraduna.
13. Kirol-klubaren erantzukizuna da instalazioa garbi eta baldintza onetan uztea.
14. Kirol-klubak kirol-pista eta aldagelan erabiltzen ahal izanen ditu.
15. Kirol-klubak berak eman beharko du beharrezko kirol-materiala.
16. Kirol-pistan kirol-oinetako (zola idor eta garbikoak) eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da.
17. Kirol-klubak instalazioaren arduradunari jakinarazi beharko dio (kiroldegia tel. 607251955; pilotalekua tel. 948452145), bai eta kirol-klubaren teknikariari ere, 48 ordu lehenago gutxienez, aurreikusitako erabilerearekiko edozein aldaketa gertatzen bada.
18. Adingabeek arduradun batekin egonen dira beti.
19. Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.
"41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jarduera eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.

42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla."
20. Kirol-klubak onartzen ditu eskaera-orri honetan zehaztatutako baldintzak.

Sinadura eta zigilua

Baztan, 2022ko _____aren ____an